

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko legebiltzarkide Mikel Basabe Kortabariak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “EiTBnet enpresarako Lan-eskaintza Publikoa egin dadin” hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

ZIOA

Egunekin eztabaida sakona izan da Legebiltzar honetan, EiTB taldeak egin izan dituen eta oraindino ere egiten dituen kontratazio-mota batzuei buruz. Gaur egun, EiTB taldean asko dira behin-behineko kontratua duten beharginak, baita azpikontrataren baten bitartez kontrataturik dihardutenak ere. Horrek guztiak, jakina, EiTBk bere jardun normalizaturako beharrezkoa duen egiturazko plantilla zehaztea eskatuko luke.

Dena dela, badago alor bat non egoera erabat ulertezina den: eitbnet. Enpresa horrek ez dauka egiturazko plantillarik, nahiz eta urteak diren aurrekontu guztietan haxe jasotzen dela:

“Plantilla ez estrukturala 20 pertsonakoa da”. Beraz, beharginak bai, baina zuzenean kontrataturik ez. Horixe da eitbneten egoera, gutxien-gutxienik azkeneko bost urteetan. Horrek, jakina, eragin zuzena du beharginen lan-baldintzetan.

EiTBren 2011 urteko aurrekontuetako memorian irakurri ahal izan dugu taldearentzat garatu beharreko proiektu estrategikoen artean haxe dagoela:

“Ekitaldi honen amaieran, EiTB taldeak nahierako telebista- eta irrati-edukiak eskaini ahal izango ditu, eitb.com-en eta Interneteko beste banaketa-plataforma batzuen bidez. Eskaintza hori bat dator gorantz doan kontsumo-tipologia berriarekin, alegia, Internet bidezko sistemei lotutako kontsumoekin”.

Horixe da 2010aren amaierarako EiTBk lortua izango duela aurreikusten duena, eta 2011n lortu beharrekoak zerrendatzen dituztenean, berriz, taldeko arduradunek haxe jasotzen dute:

“Nahierako irrati eta telebista edukien plataforma garatzea eitb.com-en, bai eta Internet bidezko beste banaketa-plataforma batzuk ere”.

Horiek horrela izanik ere, memoria berean irakur dezakegu datorren urterako aurreikusitako lan-
eskaintza publikoak ez duela eitb.net kontuan hartzen.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

- 1.- Eusko Legebiltzarrak Euskal Irrati Telebistaren zuzendaritzari eskatzen dio azter dezala zein den Eitbnet enpresak eitb.com zerbitzua egoki eskaintzeko beharrezkoa duen egiturazko plantilla, sektoreko adituekin eta EiTbN ordezkariak duten sindikatuekin.
- 2.- Eusko Legebiltzarrak Euskal Irrati Telebistaren zuzendaritzari eskatzen dio 2011 urtean eitb.net enpresaren egiturazko plantilla betetzeko lan-eskaintza publikoa egin dezala.

Gasteiz, 2010eko zementiaren 18an

Mikel Basabe Kortabarria

Aralar taldeko legebiltzarkidea